

GARAPEN JASANGARRIRAKO 2030 AGENDAREN ADIERAZLEAK. UDAL MAILAKO DATUAK.

Langabezia-tasak, garapen jasangarrirako 8. helburuaren adierazleak, Euskal AEko 251 udalerrietako 235etan egin du behera, 2015aren eta 2021aren artean

Eskualdeen erdietan gora egin du edo eutsi egiten zaio baso-azalerari, lurreko ekosistemei buruzko 15. helburuari lotutako adierazlearen arabera


Eustatek jarraitzen du Euskal AEn Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendan jasotzen diren 169 xedeen eta garapenerako lankidetzako 17 helburuen betetze-maila kalkulatu ahal izateko estatistika-adierazleak etengabe areagotzeko eta bereizteko duen konpromisoarekin.

Oraingoan, beste urrats bat gehiago eman da, eta lehen aldiz sartu dira Euskal AEko 251 udalerrien datuak eta 20 estatistika-eskualdeenak. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiarekin koordinatutako lanetik abiatuta eta Euskal AEko erakunde-mailen –Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak– parte-hartzearekin, Euskal AEko udalerri bakoitzaren kasuan, 53 estatistika-adierazle bereiztea lortu da. Haiek Nazio Batuen 20 helmugari buruzko informazioa ematen dute, garapen jasangarrirako 12 helburutan banatuta, eta hemen daude eskuragarri: [Eustaten Euskal AEko garapen jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak zabaltzeko plataforma](#). Adierazleetako batzuetarako, gainera, sexuaren arabera bereizitako serieak ageri dira.

Azken horien artean, **Desenplegu-tasa edo langabezia-tasa** (8. helburuarekin bat dator, *Guztiantzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea*) adierazlea dago, eta hura udalerriaren eta sexuaren arabera bereizita egoteak aukera ematen du fenomenoaren zenbait ikuspegitik ikusteko, ez soilik denbora-ikuspegitik.

HELMUGA 8.5 2030. urterako, enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea

8.5.2 Langabezia-tasa, sexuaren eta adinaren arabera eta desgaitasunen bat dutenak kontuan hartuta



Iturria: Eustat. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren Adierazleak


GARAPEN JASANGARRIRAKO 2030 AGENDAREN ADIERAZLEAK

Udalerrien erdiek baino pixka bat gehiagok (140), 2021ean, langabezia-tasa Euskal AEko batez bestekoaren (% 9,9) azpitik dute. Gainerako 111 udalerrietan, tasa gainetik dago. 9 udalerritan –7 Gipuzkoakoak eta 2 Bizkaikoak–, erabateko enpleguaren helburua ia beteta dago; izan ere, % 4tik beherako langabezia-tasak dituzte. Aduna, Garai, Oresa, Orendain, Zerain, Izurtza, Abaltzisketa, Gaintza eta Errezil, guztiak 600 biztanle baino gutxiagokoak. Gainera, erreferentziazat hartutako urteari dagokionez –2015a–, 235 udalerritan, langabezia-tasak behera egin du, eta Berantevilla nabarmentzen da, ehuneko 14 puntu egin baititu behera.

Udal- eta eskualde-mailan bereizitako beste adierazle bat **Batez besteko errenta erabilgarri pertsonala** da, 1. helburuari lotua, eta xede du *Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan*. 2015. urteari dagokionez, batez besteko errenta erabilgarri pertsonalak 251 udalerriko 240tan gora egin du, eta haietako 127tan, Euskal AE osoko batez bestekoaren gainetik (% 11,2). Izurtza nabarmentzen da, bertan errenta erabilgarri pertsonala bikoiztu egin baita bost urtean.

HELMUGA 1.2 2030. urterako, gutxienez erdira jaitea pobrezian, bere dimentsio guztietan (definizio nazionalen arabera), bizi diren gizon, emakume eta adin guztietako haurren proportzioa

1.2.1 Pobrezia-atalase nazionalaren azpitik bizi den biztanleriaren proportzioa, sexuaren eta adinaren arabera banatuta



Iturria: Eustat. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren Adierazleak

15. helburuarekin lotuta (*Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeta eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea*), **Basoen azalera, azalera osoarekiko proportzioan** adierazlea dago, eta, 2021ean, % 54,8koa da, Espainiako datuaren oso gainetik –2018an % 36,5koa izan zen– eta autonomia-erkidego guzti-guztien gainetik.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa nabarmentzen da baso-azaleraren proportzio handiena duen lurralde gisa, % 61,6ra iristen baita. Bizkaia % 59,6ra iristen da eta Araba, % 46,8ra. Udalerrien arabera, 251 udalerrietako 145 batez bestekoaren gainetik daude, eta 106, azpitik.

GARAPEN JASANGARRIRAKO 2030 AGENDAREN ADIERAZLEAK


HELMUGA 15.1 2020. urterako, lurreko ekosistemen eta ur gezaren barne-ekosistemen eta horien zerbitzuen zaintza, berrezarpena eta erabilera jasangarria bermatzea, bereziki hauena: basoak, hezeguneak, mendiak eta gunee lehorak; hori guztia, bat etorritik nazioarteko hitzarmenen bidez ezarritako betebeharrekin

15.1.1 Basoen azalera, azalera osoarekiko proportzioan



Basoen azalera, azalera osoarekiko proportzioan

2021




Iturria: Eustat. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren Adierazleak

Helmugarako aurrerapenari dagokionez –basoak mantentzea eta kontserbatzea ditu ardatz–, 25 udalerritan, azalera osoaren gaineko ehuneko puntu bat baino gehiagoko igoerak izan dira baso-azaleran, 2016aren eta 2021aren artean, baina 64tan puntu bat baino gehiagoko atzerapenak ere izan dira. Eskualdeen arabera, egoera orekatuta dago: erdian, aurrera egin da edo eutsi egin zaie eta, beste erdian, atzera egin da.

Adierazle horiek [Euskal AEko garapen jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak zabaltzeko plataforman](#) daude eskuragarri; Eustaten web-orritik eskura daitezke. Gaur egun, Eustaten plataformak 280 estatistika-adierazle jasotzen ditu, eta, haien bidez, Nazio Batuen 112 adierazle globalen eta 2030 Agendaren 85 helmugaren berri ematen da. Agendaren 17 helburuen berri ematen da, behintzat zati batean.

GARAPEN JASANGARRIRAKO 2030 AGENDAREN ADIERAZLEAK

GJHeK informatutako adierazleen kopurua



Iturria: Eustat. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren Adierazleak

Plataforma horretan, parrilla-formatuan, helmuga eta helburuei lotutako 280 adierazleak ageri dira. Joerari buruzko zantzu bat erakustez gainera, ikono bat ere ageri da, eta hark esaten digu adierazlea udal-mailan zabaltzen ote den, eskuragarri dagoen azken datuarekin batera eta erreferentziazko urtekoarekin batera.



HELBURUA 1: Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan


HELMUGA 1.2 2030. urterako, guboen ez erdira jaistea pobrezian, bere dimentsio guztietan (definizio nazionalen arabera), bizi diren gizonezkoen, emakumeen eta adin guztietako haurren proportzioa

1.2.1 Pobrezia-atalase nazionalaren azpitik bizi den biztanleriaren proportzioa, sexuaren eta adinaren arabera banatuta

	Udalerriak	Unitatea	Urtea	Datua	Oinarri-urtea	Oinarri-datua
Pobrezia erlatiboko arriskuan dauden pertsonen proportzioa, pobrezia-atalase nazionala kontuan hartuta	→	%	2020	9,84	2014	10,34
Pobrezia erlatiboko arriskuan dauden pertsonen proportzioa, pobrezia-atalase autonomikoa kontuan hartuta	→	%	2020	17,77	2014	18,52
Pobrezia erlatiboko arriskuan dauden eta egotzitako alokairua duten pertsonen proportzioa, pobrezia-atalase nazionala kontuan hartuta	←	%	2020	8,61	2012	7,14
Pobrezia erlatiboko arriskuan dauden eta egotzitako alokairua duten pertsonen proportzioa, pobrezia-atalase autonomikoa kontuan hartuta	←	%	2020	16,37	2016	14,29
Batez besteko errenta pertsonala	→	€	2020	22.343	2015	19.968
Batez besteko errenta erabilgarri pertsonala	→	€	2020	18.699	2015	16.731

Adierazle bakoitzetik abiatuta, pantaila batera sartuko gara, eta, bertan, informazio osoa, numerikoa eta grafikoa ageri da, metadatuarekin batera; hori guztia, Nazio Batuen adierazlean kokatuta. Era berean, zer helmugari lotuta dagoen. Gainera, helmuga berari lotutako gainerako adierazleetara ere sar gaitezke eta, hori guztia, Nazio Batuen adierazleen esparruaren itxurarekin eta konfigurazio grafikoarekin.

GARAPEN JASANGARRIRAKO 2030 AGENDAREN ADIERAZLEAK



Eustatek jarraitzen du [Eustaten Euskal AEko garapen jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak zabaltzeko plataforma](#) etengabe garatzeko lanean, batetik, dagoeneko argitaratutako estatistika-adierazleen bereizketak eskaintzeko, eta, bestetik, egun arte bete ez diren xedeen gaineko informazioa ematen duten adierazle berriak sartzeko.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62